

LEKUKOTASUNA

Jean Haritschelhar baigorriarra, gizon jakintsu eta baikorra...

Batzuetan iduritzen zaigu presuna bat betidanik ezagutzen dugula, haren izena jende askoren aho-mihitan entzuten dugulako, eta beraz, ohartu gabe, etxekotzen baitzaigu.

Jean Haritschelhar jaunaren izena, nik, lehen aldikoz, liburu saltegi batean ikusi nuen. Gaztetxoan nintzen, eta orduko, euskal kulturaz kurios izanez, *Etre Basque* liburu gotorra erosi nuen. Privat argitaletxeak Frantzia osoan hedatu zuen obra haren idazlea, edo hobeki erran, liburu hartako gai desberdinen kudeatzailea Haritschelhar jauna zen.

Garai hartako jakintsunei galdegin zien beren azterketen berri eman zezaten, eta horrela beraz, asko ikasi nuen nola Euskaldunen lurraz hala hizkuntzaz eta kulturaz. Artikulu luze-luze haien idazle batzuren izenak oraindik gogoan ditut: Georges Viers, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Pierre Lafitte, Maite Lafourcade, Juan San Martin, Jose Antonio Arana Martija, Jean-Michel Guilcher, eta abar.

Jean Haritschelhar jaunaren beste lan batzu ere irakurri nituen, Letretan Doktore izaiteko Bordeleko Unibertsitatean aurkeztu ondoan bi liburukitan plazaratu baitzuen: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun* (1786-1862) eta *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*. Bigarren honetan agertzen baitziren Etxahun-Barkoxeren koplak beren frantsesezko itzulpenarekin, edizio elebidun hura ontxazko baliatu nuen xuberotarra arrunt arrotza baitzitzaidan. Eta soldadugo denboran, ene lagun xiberotarrei Etxahunen berset batzuk kantatzen nizkien, *Manexa* izanagatik, haien mintzajia ere amiñi bat entelegatzen nuela frogatzeko...

Horiek horrela, Baionako *Xirrixti-Mirrixti* antzerki taldean sartu nintzelarik, eta geroago EATB (Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra) elkarteburu hautatu nindutelarik, gomitatua izan nintzen Pizkundera federazioaren bilkuretara. Pizkundearen lehendakaria Jean Haritschelhar baikenuen, orduan hasi ginen elkar agurtzen.

Pizkundearen helburuetarik bat baitzen euskararen eta euskal kulturaren sostengatzeko egitura berri baten xutik ezartzea, 1984ean Euskal Herriko Kultur Etxea eraikia izan zen Baionan. Haren kudeatzeko, bi Kontseilu onartuak izan ziren, bata Administrazio Kontseilua, bestea Norabide Kontseilua. Jean Haritschelhar jaunak lehen hartan parte hartzen zuen, nik aldiz bigarreanean. Horrek erran nahi zuen elkar gero eta maizago ikusten genuela.

Lau urte barne Baionako Kultur Etxe hark porrot egin zuen. Egundainokotik egundainokora, negoziaketak berriz haste! Jakes Abeberry, Erramun Bachoc eta Jean Haritschelhar izan ziren Parisen. Hiruak, bakoitza bere moldean, bakoitza bere hitzekin, suharki mintzatu zitzaizkien Kultura eta Barne ministeritzetako ordezkariak. Urrats hura baitezpadakoa izan zen. Gero, Pierre Joxe, orduko Barne ministro sozialista jin zitzaigun Euskal Herrira eta Jean Pinatel Lapurdiko auzapezen lehendakariak garbiki erran zion Frantses Estatuak lehenbailehen zerbait funtsezkorik egin behar zuela euskararen eta euskal kulturaren alde.

Negoziaketa haien ondotik Euskal Kultur Erakundera sortu zen 1990ean eta Uztaritzeko Lota jauregian plantatu. EKEko Administrazio Kontseiluan hogeita hiru kide geunden, hiru kategoriatan banatuak: Botere Publikoek zortzi ordezkari bazituzten, euskal elkarteek beste hainbeste eta hamaseien artean hautatu genituen lau pertsonalitate kalifikatu. Jean Haritschelhar, euskaltzainburu gisa, pertsonalitate kalifikatuen lerroan zegoen, ene aldetik antzerkilarien eta bertsularien elkarteak ordezkatzeko nituela.

Eta ikusten nuen, Jean Haritschelhar, beste hainbeste lanen artetik, EKEko bilkura guzietan parte hartzen, aldi gehienetan bere ikusmoldea argiki emaiten zuela.

Behin, administratzaile batek erran zuelarik ez zela ados EKEk “apezen kazeta” zen *Herria* astekariari diru laguntzarik eman ziezaion *Herria eta kultura* gehigarriarentzat, Haritschelhar jaukitu zitzaion: “Bai, Euskal Kultur Erakundearen eginbidea da euskara hutsez idatzia den Iparraldeko astekari bakarraren laguntzea, eta hori, duda-muda izpirik gabe!”.

Geroago, 1997an, EKEko zuzendari hautatua izan nintzelarik, Haritschelhar jaunarekin solastatzeko paradak emendatu zitzaizkidan.

Funtsean, behin baino gehiagotan gertatu zitzaigun elkarrekin bidaiatzea, hala nola Eusko Jaurlaritzak antolatu Euskararen Aholku Batzordeko bilkuretara gindoazelarik, ni gidari eta hura eleketari, ene gogoaren aberasgarri...

Gasteizeko bilkura luze haietarik itzultzean, buruak arrunt berotuak, Etxegarate lepoko ostatura hurbiltzean proposatzen niolarik: "Ahamen bat janen dugu, ez?" Haritschelhar jaunak arrapostu: "Duda duzia? Ahamen bat baino gehiago ere, bai!" ... Afaltzen hasi bezain laster berehala lasaitzen bezala zen eta umore onak gaina hartzen zion.

Ez dut egundaino norbaiten mendratzen edo gutxiesten aditu, bazekien ere jendeen entzuten, halaber hautetsien aitzinean zuhurki eta fermuki mintzatzeko. Zuhurki eta fermuki baina hitzak neurtuz. Bera auzapez izana zelakoz, arras ongi bazekien hautetsiak behar zirela "abilki bildu", ez eta bortizki erasiatu...

Bestalde, Euskaldunez orokorki eta hizkuntzaz bereziki, frantses telebistan eta irratieta mintzatzeko, mende laurden batez, gure "anbaxadorerik" hoberena izan zen.

EKEko Administrazio Kontseiluko bilkura guzietan parte hartzen zuen bezala, gure urteko Biltzar nagusiak ere ez zituen segur huts egitekoak ! Baina baldintza hau emanez : Biltzar nagusitik landa bazkalduko ginen jatetxean telebista bat izan zedin, horrela errugbi partida ikusten ahalko baitzuen!

Euskal Kultur Erakundeak betidanik mintzaldiak zuzenki antolatu izan baititu, hala nola *Hitzak mintzo* eta *Lekuko handiak* sail desberdinetan, nor egokiagorik Haritschelhar baino, hiru hitzaldiren segidan egiteko eta bere biziko lekukotasunaz jendeen argitzeko?

Hiru toki proposatu genizkion: Baigorri, Baiona eta Angelu. Baigorri, sorterria zuelakoz eta bederatzi urtez egon baitzen hango auzapez. Baiona, hogeita hiru urtez Euskal erakustokiko zuzendari izana baitzen. Angelu azkenik, Euskal Herriko zazpi probintzietako hiriburuetan eta edozein herritan ibiltzen bazen ere, arratsetan Angeluko *Elorrieta* etxera biltzen baitzen, bere emaztearen ondora.

Diziplina handiko presuna baitzen eta euskal elkarteek antolatu ekintzak nehork baino hobeki jarraitzen baitzuten, Sarako Liburuaren eta Diskoen azokan ere urtero parte hartzen zuen. Hara zergatik, Euskal Kultur Erakundeak proposaturik, Saran ohoratua izan zen *Biltzar Saria* eskuratuz.

Jean Haritschelhar zenaz oroz gainetik atxikiko dudan oroitzapena : haren baikortasuna ! Baikortasun harrigarria. Beti sinesten zuen noizbait nonbaitik, zakutik edo zorrotik, zerbait erdietsiko genuela eta beraz ez zela sekula amor eman behar. Eta bere bizi luzean, zorionez, aitzinamendu handiak ikusi zituen, batzuk segurik hark berak bultzaturik.

Haren baikortasun berarekin segi dezagun Euskaldun egiten gaituen hizkuntzaren zaintzen, garatzen eta gazteei helarazten, horretarako beharrezkoak zaizkigun legezko eskubide guziak lortuz.

Hori litzateke Haritschelhar jaunari egiten ahalko diogun omenaldirik egokiena, esker onez.

Pantxoa ETCHEGOIN

Euskal Kultur Erakunde zuzendaria